

ZINEMA TXEKIARRA

Amaia Zorrillak hautatu eta koordinatutako zinema zirkloa

Otakar Vávra izango da zine txekiarren zehar bidaia irekitzeko arduraduna. 1948ko otsailean Alderdi Komunista igoko da boterera eta bi hilabete beranduago “Kraakatit” estreinatuko da.

Utzi dezagun atzera Vávra maisua 50. hamarkadan sartzeko.

Marrakzi bizidunen garai famatuaren historia II Mundu Gerraren ondoren hasi zen. Jiří Trnka eta Karel Zeman izan ziren animaziozko pelikula bikainen sorreraren arduradunak. Lehena, teknika honetako oztoporen bat ezabatu zuena izan zen, adierazkortasunaren falta hain zuzen, bere panpinei bizia eta sentimenak emanda haien mugimenduen berregite zehatzaren bidez. Aldi berean K. Zemanek, beste aitzindari bat esparru honetan, bere teknikak erakutsi zituen eszenatoki surrealistikak sortzen non benetako akzioa eta pertsonai bizidunak uztartzen baitzuten.

Ordura arte, oso pelikula bakana batzuk zeukaten gorazarrerik. Baina dena aldatu zen “Onda Berria”ren jaiotzarekin zeinek 1963 eta 1968 arteko askatasun politikoaz baliatzen jakin baitzuen.

Espiritu iraultzaile aldi bat, abangoardia izaerako mugimendu kulturaduna, zeharka erretzeko artea, urratze. Laburbilduz, denaren edo ia denaren kritika.

Geroxeago, 70az geroztik, oso ezaguna egin ziren komedia zoro eta ihakintza. Jindrich Polák eta Oldrich Lipsky (zinea leku magiko, eldarniozko eta mugarik gabeko leku bat bezala ulertu baitzuen K. Zeman oinordekoa) izango dira sail hau ixteko arduradunak etorkizuneko estetikaz eta denbora-bidaiaz bi obrek.

SARRERA DOHAINIK. PROIEKZIOAK 19H.TAN HASIKO DIRA. PROIEKZIOA ETA GERO FILMEARI BURUZKO EZTABAIDA EGONGO DA. FILMAK JATORRIZKO HIZKUNTZAN IKUSIKO DIRA, GAZTELANIAZ AZPITITULATUAK.

MEM

Pulimentos del Norte
C/ Cortes 29-31. 6º E

BILBAO

Sortzailea bazara kontsulta itzazu gure zinema, bideo eta arte deialdiak MEM web gunean:
<http://www.FESTIVALMEM.com>

Zinema Txekiarren Programazioa

MARTXOAK

7, ASTEAZKENA - 19:00H -JIŘÍ TRNKA-REN EGUNA

1946 - “Pérák a SS” (Jiří Trnka) 13 min

1949 - “Story Of The Bass Cella” (Jiří Trnka) 13 min

1951 - “The Merry Circus” (Jiří Trnka) 11 min

1953 - “A Drop Too much” (Jiří Trnka) 19 min

1962 - “The Cybernetic Grandma” (Jiří Trnka) 29 min

14, ASTEAZKENA - 19:00H

1948 - “Kraakatit” (Otakar Vávra) 110 min

21, ASTEAZKENA - 19:00H

1958 - “Julio Vernerren Mundu Zoragarria” (Karel Zeman)
78 min

28, ASTEAZKENA - 19:00H

1963 - “Postava K Podpírání” (Pavel Juráček) 38 min

1971 - “Straw Hat” (Oldřich Lipský) 46 min

APIRILAK

4, ASTEAZKENA - 19:00H

1964 - “Gaueko Diamanteak” (Jan Nemeč) 63 min

11, ASTEAZKENA - 19:00H

1966 - “Zorrotz Zaindutako Trenak” (Jiří Menzel) 73 min

18, ASTEAZKENA - 19:00H

1967 - “Suhiltzaileak, Sutara!” (Milos Forman) 73 min

25, ASTEAZKENA - 19:00H

1970 - “Einstein hil nuen, jaunok” (Oldřich Lipský) 94 min

MAIATZAK

2, ASTEAZKENA - 19:00H

1977 - “Zítřa vstanu a oparím se cajem” (Jindrich Polák) 90 min

9, ASTEAZKENA - 19:00H

1978 - “Adéla Jeste Nevečerela” (Oldřich Lipský) 102 min




JIŘÍ TRNKA

Jiří Trnka (Pilsen, 1912ko otsailaren 24 - Praga, 1969ko abenduaren 30) irudigile, eszenografo eta animaziozko film-zuzendari txekiar bat izan zen. Bere irudigile lan zabalaz gain, bereziki haurrentzako liburuak, ezaguna da batez ere 1946az geroztik txotxongiloekin egindako bere lan-animazioaz: bere ibilbidean zehar 20 pelikula baino gehiago zuzendu zituen, haien artean 6 luzemetrai, zeinak indartu egin zuen animaziozko “txekiar estiloa” deritzona.

1946 - “PÉRÁK A SS” (JIŘÍ TRNKA) 13 MIN

“Perak, udaberriko gizona” Bigarren Munduko Gerraren erdian Txekoslovakiaren inbasio alemaniar zela eta, Praga hiri txekiarretik datorkigun hiri-elezahar bat da. Trnka-ren laburmetrai animatuan erakusten da Pérák beltzaz jantzitako kedar-garbitzaile heroiko eta bihurria, jauzi ikaragarriak egiteko gai den bere oinetakoetan lotutako sofa-kiribilen esker, eta etxeratze-aginduz nahiz alemaniar-okupazio indarren agintaritzaz trufa egiten duena.



1949 - “STORY OF THE BASS CELLA” (JIŘÍ TRNKA) 13 MIN

Un Anton Chejoven ipuin batean oinarritutako laburmetraia. Biolontxelo-jotzaile batek urmael baten ondoan esertzen da eta bere arropaz askatzea (bere kapela luze ez ezik) eta uretan ibiltzea erabakitzen du. Beste aldeko ertzean neska eder bat dago lotan arrantzarako kanaberaren atzean, eta hark, aingeru hegadun bat balitz bezala irudikatzen du, lehen begi kolpeko maitasuna.

1951 - “THE MERRY CIRCUS” (JIŘÍ TRNKA) 11 MIN

Stop motion laburmetraia paper ebakinekin, ohiko txotxongiloen ordez. Karpan, pailazo, malabarista eta orekariaren saio bat ikusten da. Jarraian, dantzari batek akrobaziak egiten ditu ringaren inguruan bueltak egiten dituen zaldi baten gainean.



1953 - “A DROP TOO MUCH” (JIŘÍ TRNKA) 19 MIN

A Drop Too Much, motoziklista baten zorigaiztoko istorio bat da non bere neskarekin elkartzeko bidaian taberna batean gelditzen baita ezin oke-rago ondorioekin. Gidatzean alkoholaren kontra ohartarazteko laburmetrai bat zen.



1962 - “THE CYBERNETIC GRANDMA” (JIŘÍ TRNKA) 29 MIN

Kybernetická Babicka izeneko laburmetrai bizidun hau, eguneroko bizitzan teknologiaren garrantziaren kontrako satira bat da.

1948 - “KRAKATIT” (OTAKAR VÁVRA) 110 MIN

Krakatit, Otakar Vavrak zuzendutako eta Karel Högerrek antzetzutako pelikula bat da non kimikari batek, ahalmen handiko lehergai bat asmatu eta gero, eldarnioz eta damuz sufritzen baitu. Filma, Karel Capeken izen bereko nobelan oinarrituta dago.





**1958 - "JULIO VERNEREN MUNDU ZORAGARRIA"
(KAREL ZEMAN) 78 MIN**

Zientzialari bikain bat, Roche doktoa, itsas galernatsu baten gaintik dabil: ahalmen handiko lehergai baten asmakuntza, noiz bera eta bere laguntzailea, Artigasek, negozio gizon maltzur batek, bahituta baitira. Roche, engainatuta da bere esperimntua garatzeko asmo gaiztoz. Zientzialariaren laguntzailea, Simon, eten gabe ari da borrokatzen askatzeko eta Rocheri abisatzeko. Itsaspekoak, belaontzi barrokoak, olagarro hiltzailak, giza-aktoreak, txoxongiloak, animazio eta fantasiako eszena-diseinuak zeinek elkarri eragiten diote esperientzia zinematografiko paregabe bat sortzeko.

**1964 - "GAUEKO DIAMANTEAK"
(JAN NEMEC) 63 MIN**

Gaueko diamanteak, bi ume judutar istorioa da zeinek kontzentrazio eremu batetik beste batera eramaten zituen trenetik ihes egiten baitute. Pelikula, gerra eta nazismoaren kontrako setatik baino haratago doa eta gizaduintasuna babesteko gizakiaren borroka arduratzen da.



**1966 - "ZORROTZ ZAINDUTAKO TRENAK"
(JIRÍ MENZEL) 73 MIN**

Ostre sledované vlaky, izen bereko Bohumil Hrabalen eleberrian oinarritutakoa pelikula da. Bigarren Munduko Gerran Alemaniak okupatutako Txekoslovakian tren geltoki batean lan egiten duen gazte baten istorioa kontatzen du. Miloš Hrma gazteak bere kabuz dihardu, ordainsaririk gabe, tren geltoki txiki batean. Geltokiko nagusiak emazte atsegin bat dauka baina bekaizten du Hubičkaren arrakasta emakumeekin. Burdinbide geltokiko egunerokotasuna apurtuta geratuko da Zednicek zinetotzi nazi-kolaboratzaile etorrerarekin.

Pelikulak, 1966an Mannheim-Heidelberg International Film festivalean Sari Nagusia irabazi zuen eta 1967an kanpoko pelikula onenari Oscarra.

**1963 - "POSTAVA K PODPÍRÁNÍ"
(PAVEL JURÁČEK) 38 MIN**

Pragatik ibiltzen, gizon batek katuak "alokatzen" ziren denda bitxi bat aurkitzen du. Izapide guztiak egiten ditu bat alokatzeko eta itzuli behar duen eguna denda desagertu dela egiaztatzen du. Kafkaren itxura duen istorio bitxi baten hasiera da hau. Filma, erdimetrai bat dena, nazioartean ezaguna da "Josef Kilián" tituluarekin eta 1963ko Oberhausengo Zinemaldiaren Sari Nagusia irabazi zuen, baita Mannheimgo Zinemaldiaren Fipresciaren saria.




1971 - "STRAW HAT" (OLDŘICH LIPSKÝ) 46 MIN

Oldřich Lipsky, bere satiraz eta komediaz esagunagoa denaren filma. Bigarren Munduko Gerran, Lipsky bolada bat pasa zuen lan-eremu batean. Gerotxeago Pragako Charles Unibertsitatera joan zen eta filosofia estudiatu zuen. Aktore eta gidoilari lan egin zuen 50. urtetan zuzendari izan arte 1954an.

**1967 - "SUHILTZAILEAK, SUTARA!"
(MILOŠ FORMAN) 73 MIN**

Herri txekiar txiki baten suhiltzaileek jai bat antolatu nahi dute jubilatuko den bere nagusia agurtzeko. Jaialdiak izango ditu dantza, sari potolozko zozketa bat, urrezko aizkora bat gorazarretuari emateko ekitaldia baita edertasun konkurto bat ere bertako nesken artan. Hala ere dena gaizki suertatzen da zeren lehiakideak itsusi baino itsusiagoak baitira, sariak lapurtuta baitira eta are gehiago, agure batek, etxea sutan duela, ez baitu laguntzarik jazotzen. Formanen azken filmak, desadostasun ofiziala ez ezik, suhiltzaileen greba nazionala eragin zuen bere proiektioa ekiditeko.





1970 - "EINSTEIN HIL NUEN, JAUNOK"
(OLDRICH LIPSKÝ) 94 MIN

Etorkizuneko 1999. urtean, terroristek hondamendia eragin duen lehergailu atomiko batzuk bota dituzte. Pozoitasun erradiaktiboak emakumezko biztanleria antzutu egin du, eta artegagarriago, bizarra atera zaio! Hondamena hau dela eta Kaosak mundua hartuko du, manifestazioak, grebak eta dibortzioak egiten dira, horregatik ONUk parte hartzea erabakitzen du. Hasieran, porrot egingo duen bizarra mozteko tramankulu erraldoi batekin, eta azkenean erabaki erradikal eta zoro bat (nahiz eta logika bitxi batekin): Denbora-makinaz iraganera bidaiatu eta Albert Einstein hil; era horretan iraultza atomikoa beste norabidetik joango litzateke eta lehergailu atomikoak ez lirateke existituko.



1978 - "ADÉLA JESTE NEVECERELA"
(OLDRICH LIPSKÝ) 102 MIN

Nick Carter detektibea Praga bisitatzen duenean, txakur bat eta landare haragijale baten arteko auzi bitxi batean nahasia suertatzen da. Detektibea sinetsita dago bere etsai nagusiari -lorazainari- aurre egin behar diola, zein duela urte batzuk zingira batean hil omen zen.

OHARRAK

1963 - "POSTAVA K PODPÍRÁNÍ"
(PAVEL JURÁČEK) 38 MIN

Berriro iraganera bueltatzeko ideia. Kasu honetan Klaus Abard nazi ohia da Hitler garaitu nahi duen hidrogeno lehergailu baten bidez.

